



PRENTSA OHARRA

Autoritateak.eus, pertsona-izenen autoritateak bateratzeko tresna

Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Autoritateen Lantaldeak gaur sinatutako hitzarmenaren bidez, atari berriak euskarazko pertsona-izenen autoritate arautuak eta bateratuak ikusgai jarriko ditu, liburutegiek, komunikabideek eta toki-entitateek eskura izan ditzaten

Donostia, 2024ko maiatzak 20. Gaur, maiatzak 20, Donostian, Euskal Autoritateen Lantaldeak Eusko Ikaskuntzarekin sinatutako lankidetzahitzarmena aurkeztu da. Horren bidez, 2017an Euskal Herriko zazpi lurraldeetako eta euskal diasporako liburutegietako eta dokumentazio-zentroetako profesionalek abian jarritako ekimenarekin bat egin du Eusko Ikaskuntzak.

Proiektu honen xedea euskaratik euskal bibliografian dauden autoritateen zerrenda bateratu bat sortzea da, erabilera komunerako. Kontzeptu horren baitan jasotzen dira Euskal Herrian edozein hizkuntza, gai edo formatutan editatutako edo ekoiztutako lanak, zein Euskal Herritik kanpoko baina euskal hizkuntza edo kulturarekin zerikusia duten horiek ere.

Zer dira (euskal) autoritateak?

Liburuzain-katalogatzaileek erregistro bibliografikoetan pertsona-izenak edo gaiak modu normalizatuan eta bateratuan erabili ahal izateko, aurretik autoritateak landu behar dira, hau da, bibliografietan jasotzen diren autoritate-erregistroen (izenen, ezizenen edo tituluaren) forma komun, normalizatu eta arautua ezarri behar da; autoritateen kontrolaren bidez, gainera, (katalogoetako sarbide-puntuak sortzen, bateratzen eta eguneratzen dituzten prozesuen multzoaren bidez), sarreren arteko erlazioak erakutsiko dira.

Helburua biltegiatutako dokumentuak bilatzea, identifikatzea eta berreskuratzea da, nahasteak saihestuz eta erabiltzaileari denbora aurreztuz. Erakunde korporatibo edo pertsonal jakin baten obrak bilaketa bat egiten den bakoitzean berreskuratzen direla ziurtatzeko, sarrera nagusia zehaztu behar da, haren forma onartua ezarri, baita onartu gabeko formak edo lotutako formak aipatu ere.

Erabilera, batez ere, katalogoetan, liburutegietan eta beste edozein erregistro guneetan emango da, baina baita hedabideetan edo kale



izendegietan ere. Autoritateei esker, eta kasu honetan zehazki euskal autoritateei esker, erregistroen bilaketan, euskaraz ere erreferentzia komun, normalizatu eta arautuak egonen dira eskuragarri.

Izen-deiturak arautzeak erreferentzia fidagarria, bateratua eta iraunkorra ematen du. Euskal Herriko Liburutegi Nazionalaren faltan, lan horren ardura Euskal Autoritateen Lantaldeak eta Eusko Ikaskuntzak hartu dute, euskaratik ere nazioartean indarrean dauden arauekin eta erakundeekin bat egiteko asmoz.

Aurkezpenean, **autoritateak.eus** ataria ezagutzera eman da. Bertan, autoritateen izenak biltzen dituzten fitxak jasoko dira, aldaerak, onartutako edo onartu gabeko moduak barne, eta kontsulta irekian eskuragarri egongo da. Gaur sinatutako hitzarmenean zehazten denez, Eusko Ikaskuntzak bere gain hartzen du proiektua garatzeko beharrezkoa den azpiegitura teknologikoa jartzea.

Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren iritziz, *“herri-ikuspegia bultzatzen duen eta interes orokorrekoa den ekimena da, euskal ekoizpenaren hedapena eta sarbidea erraztuko dituena, baita euskararen sustapena ere, eta Euskal Herriko zazpi lurraldeetako eta euskal diasporako kultura- eta akademia-erakundeen arteko lankidetzak bultzatuko duena”*.

Bestalde, **Idoia Sobrino** Euskal Autoritateen Lantaldeko kideak nabarmendu duenez, *“euskaratik lan hau modu orokor eta bateratu batean egin gabe zegoen oraindik eta gaurtik aitzin iturri komun bat izanen dugu, autoritateen zerrenda oso bat, edozein erakundek bere autoritate katalogoa osatzeko erabili ahal izanen duena”*. Tresna bera hurrengo urtetan handitzen eta gorpuzten laguntzen duten profesionalak eta erakundeak aipatu ditu ere: BILKETA Sarea (IKAS Pedagogia Zentroa, Euskal Museoa, Baionako Liburutegia eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko Liburutegia), ASNABI (Nafarroako Liburuzainen Elkarteak), Eusko Jaurlaritza (Liburutegi Zerbitzua, Euskariana, HABE eta EIMA Katalogoa), Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegia eta Renoko Unibertsitateko Jon Bilbao Liburutegia.



NOTA INFORMATIVA

Autoritateak.eus, una herramienta para la unificación de autoridades de nombres de persona

Mediante el convenio firmado hoy entre Eusko Ikaskuntza y Euskal Autoritateen Lantaldea, el nuevo portal pondrá a disposición de las bibliotecas, medios de comunicación y entidades locales las formas regladas y unificadas desde el euskera de las autoridades de nombres de persona

Donostia-San Sebastián, 20 de mayo de 2024. Hoy, 20 de mayo, se ha presentado en Donostia-San Sebastián el convenio de colaboración firmado entre Euskal Autoritateen Lantaldea (Grupo de Trabajo de Autoridades Vascas) y Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. A través del mismo, Eusko Ikaskuntza se suma a la iniciativa puesta en marcha en 2017 por profesionales de las bibliotecas y centros de documentación de los siete territorios de Euskal Herria y de la diáspora vasca.

El objetivo de este proyecto es crear, desde el euskera y para uso común, un listado unificado de autoridades presentes en la bibliografía vasca. Bajo este concepto se engloban las obras editadas o producidas en Euskal Herria en cualquier lengua, tema o formato, así como aquellas que tienen que ver con la lengua o la cultura vasca pero editadas o producidas fuera del propio territorio.

¿A qué nos referimos con autoridades (vascas)?

Para que los y las bibliotecarias-catalogadoras puedan utilizar de forma normalizada y unificada nombres de personas o materias en los registros bibliográficos, es necesario trabajar previamente las autoridades, es decir, establecer la forma común, normalizada y regulada de los registros de autoridad (nombres, sobrenombres o títulos) que se recogen en las bibliografías; mediante el control de autoridades, (el conjunto de procesos que crean, unifican y actualizan los puntos de acceso a los catálogos), se muestran además las relaciones entre las diferentes entradas.

El objetivo es buscar, identificar y recuperar los documentos almacenados, evitando mezclas y ahorrando tiempo a las personas usuarias. Para asegurar que las obras de una determinada entidad corporativa o personal se recuperan cada vez que se realiza una búsqueda, se debe especificar el encabezamiento principal, es decir,



establecer su forma aceptada, así como las formas no aceptadas o relacionadas.

Su uso se dará principalmente en catálogos, bibliotecas y bases de datos de registros, pero también en medios de comunicación o callejeros municipales. Gracias a las autoridades, y en este caso concretamente a las autoridades vascas, al realizar búsquedas también estarán disponibles, en euskera, las referencias comunes, normalizadas y reguladas.

La normalización del nombre y apellidos proporciona una referencia fiable, unitaria y permanente. A falta de la Biblioteca Nacional del País Vasco, esta labor ha sido asumida por Euskal Autoritateen Lantaldea y Eusko Ikaskuntza, con el objetivo de sumarse, también desde el euskera, a las normas e instituciones internacionales vigentes.

En la presentación se ha dado a conocer el portal **autoritateak.eus** donde se irán alojando las fichas con los nombres de las autoridades con sus variantes, formas aceptadas o no aceptadas, y que estará disponible en consulta abierta. Conforme al convenio firmado hoy, Eusko Ikaskuntza asume la titularidad de esta infraestructura tecnológica necesaria para el desarrollo del proyecto.

En opinión de la Presidenta de Eusko Ikaskuntza, **Ana Urkiza**, *“se trata de una iniciativa con visión de país y de interés general, que facilitará la difusión y el acceso de la producción vasca, así como la promoción del euskera, y con la virtud de implicar la colaboración entre instituciones culturales y académicas de los siete territorios de Euskal Herria y de la diáspora vasca”*.

Por su parte, **Idoia Sobrino**, miembro de Euskal Autoritateen Lantaldea, ha destacado que *“este trabajo todavía no se había realizado desde el euskera de una manera global y unificada y desde hoy tendremos una fuente común, una lista de autoridades que cualquier institución podrá utilizar para completar su catálogo de autoridades”*. También ha citado a profesionales e instituciones que contribuyen a la implementación y ampliación de esta herramienta, que irá creciendo en los próximos años: BILKETA Sarea (IKAS Pedagogia Zentroa, Euskal Museoa, Biblioteca de Baionako y Biblioteca de la Universidad de Pau y el País del Adour, UPPA), ASNABI (Asociación Navarra de Bibliotecarias y Bibliotecarios), Gobierno Vasco (Servicio de Bibliotecas, Euskariana, HABE Liburutegia y EIMA Katalogoa), Biblioteca Azkue de Euskaltzaindia y Biblioteca Jon Bilbao de la Universidad de Reno.